

Hasi dira udaletxeko fatxada berritzen

■ Barrukaldea eta argiak ere berrituko dituzte ■ Otsailerako bukatu nahi dute.

UDALETXEKO fatxada ez omen dago batere egoera onean. San Joanak aurretik kendu behar izan zuten erdi erorian zegoen harriztar bat, azpian inor harrapatu baino lehen. Igeldoko hondar harria zeharo hondatzen ari omen da, eta beheko solairuak, eskailerak, balkoiak, leihoak eta argiek ere berritu baten premia badute.

LAUROGEI MILIOI

Kopuru horren bueltan kostako da obra guztia. Zailenak barruko lanak omen dira: pinturak, paretak eta gainontzekoak hondatu gabe aritu behar baitute langileek, pazientziaz.

KANPOKO ARGIAK

Fatxada bete argi jartzera doaz orain: zutabean bueltan, goiko arkupe txikien barruan, elizaldeko dorretan... Normalean, batzuek bakarrik



Andamioak hartua dauka udaletxe aurrea.

egongo dira piztuta; gainontzekoak egun berezietarako dira. Argi lanak udaletxeko langileek berek egingo dituzte, eta horrekin bukatuko da obra guztia. □



Leire Alvarez eta Xabier Segura; 1998ko txapeladunak. (Argazkia: Jose Angel Segurua)

Gazteentzako VI dantza lehiaketa gaur Plaza Berrin

KRISKITIÑAK antolatuta, 14 urte azpikoentzako dantza suelto txapelketa izango da gaur, eguerdiko 12:00etan Plaza Berrin (eguraldi txarrarekin Sandiusterrin). 15 bikotek hartuko dute parte: lau hernaniar (Mikel eta Nerea Lasa, Aimar Abad eta Lierni Martiarena), eta gainontzekoak Euskal Herri osotik etorritakoak. Irabazleek txapela, *painelua*, trofeoa eta 12000 Pta jasoko dituzte. Hurrengo lau bikoteek ere badute saria, eta parte-hartzaile guztiek dieta. Zozketan egokitzen zaion bikoteak Asteburu bat Landetan pasatzeko aukera izango du *Eroski Bidaiken* eskutik. □

BERRIAK MERKATARI ELKARTEA

Azoka, txorimalo lehiaketa, eta 3 saskiren zozketa abendurako

■ Azoka hilaren 17an ■ Lehiaketa eta zozketa 21ean. SANTO Tomasetako IV azoka izango da aurtengoa: eskulanak, liburuak, musika, preso lanak... denetik egongo da esku eskura plazan, abenduaren 17an. Festaren bizigarriri, bi txerri zozketatuko dira egun berean, eta Berriak elkarteak gaztaina erreak banatuko ditu.

TXORIMALO LEHIAKETA Abenduaren 21ean 18:00-19:00etara aurkeztu behar dira plazan. Sariak: *txorimalo* oneak 25000 Pta; bigarrenak 15000; eta hirugarrenak 10000. Egun berean, gabonetako 3 saski zozketatuko dituzte bezeroen artean eta baita pintxo eta loreak banatu ere. □

■ 3garren MAILAKO FUTBOL LIGA

Hernanik 1-1 berdindu zuen Lemoaren aurka

■ Liderrari ondo egin zieten aurre zuri berdeek.

BANAKO berdinketarekin amaitu zen atzo Zubipen jokatutako partidua. Golak amaiera aldera iritsi ziren. Ordu laurden faltan, Iker Fernandezek egin zuen 1-0ekoa, faltaz. Bazi-rudien puntuak etxean geldituko zirela; baina, 5 minutu geroago Lemoak berdindu egin zuen.

Garaipena lortu ez arren, itxura polita eman zuen Hernanik.

BESTE KATEGORIAK

Gorengoen mailan:

Hondarribia 1- **Hernani 2**

Gazteen 2garren maila:

Danena 2- **Hernani 2**

Kadeteen 2garren maila:

Hernani 1- Idiazabal 1. □

UTZI HERNANI PAKEAN! PLATAFORMA

Fidantzak ordaintzeko, arte lanak salduko dituzte

■ Arte lanak emateko prest dagoen jendea dei egingo diote ■ Abenduaren 16ra bitartean jasoko dituzte.

MAIATZA eta ekaina bitartean 32 hernaniar atxilotu zituzten. Orain, kalean dira; baina, 40 milioiko fidantza dago ordaintzeko. *Utzi Hernani Pakean* plataformak jendeak emandako arte lanak salduko ditu 5000, 10000 eta 15000 Ptatan. Beste "edozein proposamen" ere gusatora hartuko luketela diote.

ARTISTEI ESKARIA

60x60 cm-ko lanak izatea nahi lukete, eta egileak jarriko lioke salneurria. Euskarri digitalean bidalitzeko gero, eurek *ploteatu*ko dute. Lanak bidali edo informatu: [E-posta: fidantzartean@euskalherria.org](mailto:fidantzartean@euskalherria.org) helbidea: Plaza Berri, 2-4. 20120 Hernani. Gipuzkoa. □



Bidaiak

HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA

HERNANI BIDAIAK

Urbietan, 6

☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74

Faxa: 943 - 33 01 74

20.120 HERNANI

DORRONSORO



OKINDEGIA

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L

Lizeaga, 7 ☎ 943 33 36 18

20120 HERNANI



Skoda Fabia

FABIA bat 1.375.000 ptatik.* (8.263,99 euro*)

* Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa. *Koda Fabia Classic 1.4 60 CV, garraioa, zergak eskaintza bereziki plana inklusibo. Stockeko autoentzat baliozgarria. 1 euro=166,386 pt.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4

PELOTA

Eli Lasa eta Amaia Martinez finalean, paleta goman

■ Jubenilak ere finalera iritsi dira ■ Ubarretxena-Galartza ere finalean dira, pala motzean ■ Erroizenea-Argotek 22-13 galdu zuten ETB-DV Txapelketan.

PALETA gomako Gipuzkoako Txapelketan, bikain ari dira hernaniarrak. Bi kategorietan finalerako sailkatu dira.

Seniorretan atzo arratsaldean lortu zuten txartela Eli Lasa eta Amaia Martinezek: 30-22 irabazi zioten Mendizabal-Zubeldia bikote anotarrari. Jubeniletan, berriz, Patricia Hoz eta Ana Bermejo lehengo astean sailkatu ziren.

Bi final hauek egun berean jokatuko dira, eta oraindik oso segurua ez baldin bada ere, abenduaren 16-17ko asteburuan izango dira.

PALAMOTZA

Ubarretxena-Galartzak 40 eta 33 irabazi zioten *Beloki* taldeko bikoteari. Beraz, hauek ere finalean dira bigarren mailako gipuzkoako txapelketan.

ERROIZENEAK GALDU, ETB-DV SARIAN

Erroizenea eta Argotek 22-13 galdu zuten Huarte-Gorritiren aurka, ostiral gauean eskuz binaka jokatutako final laurdenetako partidua. Partidu erdirarte parekatuta joan ziren (11-10); gero Argotek eskutako miña nabaritu zuen, eta bikote *naparrek* markagailuan pixkanaka zuloa egitea lortu zuten.

JUDO ERAKUSTALDIA: III EDIZIOA

110 Judoka bildu ziren atzo kiroldegian

■ Hernani KEK antolatua ■ Txikienek erakustaldia egin zuten; zaharragoek lehiaketa.

KIROLDEGIKO pista nagusian jarritako *tatamietan* neska-mutil ugari aritu ziren atzo borrokan, nor baino nor. Hirugarren edizioa izan da aurtengoa eta arrakasta ikusita ez dirudi azkena izango denik.

60 HERNANIARR

Hainbat herritako eskoletatik etorri ziren judokak: guztira 110 izan ziren; hauetatik 60 hernaniarrak. Gainontzekoak Urnieta, Añorga Txiki, Zarautz, Tolosa eta Donostia-koak ziren. Lehenbizi txikienek egin zuten. Hauek bukatutakoan, zaharragoek lehiaketako borrokaldiak egin zituzten. Ikusle ugari hurbildu zen kiroldegira.



Irakasleak adi-adi, ikasleak nola korapilatuko.

JASOTA BEZALA

HERNANIARR PRESOK BORROKAN FRANTZIAKO ESPETXEETAN

Estatu frantziararen 84 preso daude sakabanaturik, 4 hernaniarrak. Azken hiru urteetan frantziar estatuaren espetxe politika sakabanatzailea areagotu egin da; honek ondorio zuzenak ditu preso senide eta lagunengan. 84 preso politiko hauetatik 11 bakarka sakabanaturik daude, horien artean herriko Asier Ormazabal.

Asier Euskal Herritik 688 km. tara, Chateaudun espetxean dago, egoera salatzen borrokan, beste euskal presoak bezala. Hau dela-eta isolamendu zeldan dago, oso baldintza kaxkarretan. 911km.tara Gabino Etxeberria hernaniarra ere borrokan ari da eta honek dirauen bitartean soilik idatzizko komunikazioa dauka. Angel Pikabea La-Santé espetxeke zigor-ziega batean aurkitzen da. Bere anaia Kepa Pikabea Poissy espetxean dago eta

duela hilabete batzuk aita izan da; dispertsioaren ondorioz bere semea bi hilabete zituenean ezagutu zuen. Isolamendua areagotzeko bisitak ukatzen ere hasi dira. Pasa den astean Angelen emazteari bidaiari egin ostean bisita ukatu zioten eta Asierren anaiari, larunbateko bisita egin arren, igandekoa ez zioten egiten utzi. Espainiako kartzeletako egoera ez da

xamurragoa, eta hauetan ere borroka ezberdinak ari dira garatzen. Euskal presoek bizi duten egoera onartezina da eta zenbait alderdi politikok ahaztu egin dituztenez, berebiziko garrantzia hartzen du herritarren parte hartze aktiboak euskal presoek eskubideen aldeko defentsan.

AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK

UGALDE, S.A.
SUKALDE ALTZARIAK

Lastaola industrialdea p.16
Tel. 943.551.598
Faxa 943.552.067
20120 HERNANI

Zinel

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

HERNANI (Gipuzkoa)

HITZ BITAN



Hernaniko taldea partidua jokatuta aurretik.

ESKUBALOIA

Hernaniko taldeak Elgoibarkoa hartuko du gaur. Kiroldegian, eguerdiko 12:00etan.

KROSSA

Alebin eta infantil mailetakoeke Zumarragan korrituko dute, gaur. Alebinek 1275 metroko proba izango dute. Infantiletan, neskek 1700 metrokoa; mutilek, berriz, 2125ekoa. Aurreko astean oso ondo ibili ziren hernaniarrak Belodromoko probetan.

PEÑA OTAÑO ELKARTEA

Loteriako partizipazioak hilaren 18ra arte. Ordurako hartzen ez duten bazkideek gabe gelditzeko arriskua. 1000 pezetakoa da partizipazio bakoitza.

ERRUGBIA

Hernaniarrak nagusi Iruñean 8-16. Denboraldiko bigarren partidua irabazi zuen atzo Nafarren kontra. Garaipen hau oso garrantzitsua da, Hernani denboraldi bukaeran Iruñaren pertsuan ibili litekeela pentsatuta. Bi taldeak parean dira orain launa punturekin.

AGENDA

ERAKUSKETA

Alberto Elosegiren argazkiak.

Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argazki erakusketa Zumardi jatetxean.

ZINEA

Fortaleza Infernal 2 Biterin, 17:00-19:30

MUSIKA

Trakets Oialumen, 20:00etan.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750

FARMAZIAK

► Egunez: Irigoien Elkano, 2 ☎ 943 552087
► Gaez: Rodriguez Lasarte. Nagusia, 42 ☎ 943 361774

SANTA BARBARA
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15
Tel. 943 551 139 - 943 551 979, 20120 HERNANI

AUTO ETA FURGONETA ZAHARRAK HARTU ETA 2. ESKUKOEZ ALDATZEN DITUGU

- Peugeot 405 Diesela nahiz Gasolina
- Peugeot 205 Diesela
- Citroen C-15 Diesel batzuk 380.000 pztatik
- Ford Courier Diesela-Lagundutako direkzioa
- Opel Astra 'Caravan' Diesela 675.000 pzta
- Opel Astra Diesela 875.000 pzta
- Suzuki 'Todo Terreno' 375.000 pzta

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...